



## BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ERABAKIA, COVID-19RI BURUZKO PREMIAZKO NEURRIAK HARTZEN DITUENA

Erabaki honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiak premiazko neurriak hartzea, administrazio-arloan erantzuteko koronabirusak herritarrengan eragindako eragozpenei.

Horrela, lehenengo eta behin, erabaki da Bizkaiko Foru Aldundiaren administrazio elektronikoak guztiz operatibo jarraitzea; horrezaz gainera, erabaki da prozedura guztiak 20 egun balioduneko epean luzatzea.

Gainera, bigarren, ahalmena ematen zaie foru-diputatupei, haiei dagozkien jardun-arloetan, eta prozedurekin lotuta, beharrezkoak diren beste neurri batzuk garatu eta antolatzeko.

Hirugarren, adierazten da premiazkoak direla Bizkaian pandemiari aurre egiteko beharrezkoak diren kontratu-prozedurak.

Horregatik guztiagatik, aurreko guztia betez, eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ematen dizkion eskudantziak erabiliz, Ahaldu Nagusiak proposatuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak, honako hau

### ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.— *Prozeduren epeak luzatzeko jarraibideak.*

Erabaki da hasitako administrazio-zerga prozeduretarako ez diren, elektronikoak izan ala ez, 20 egun balioduneko epea luzatzea, betiere pandemiak eragindako salbuespeneko inguruabarrak kontuan hartuta. Luzapena herritarren onurarako egitea erabaki da, eta, beraz, ez du ondorio izango prozeduren iraungipenean, ez eta ondorio kaltegarriak edo kargak ekar

## ACUERDO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA POR LA QUE SE ADOPTAN MEDIDAS URGENTES RELATIVAS AL COVID-19

Este acuerdo tiene por objeto la adopción por la Diputación Foral de Bizkaia de medidas urgentes para dar respuesta, en el ámbito administrativo, a los inconvenientes provocados por el coronavirus en la ciudadanía.

Así, en primer lugar, se acuerda que la administración electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia sigue plenamente operativa si bien se acuerda la ampliación de todos los procedimientos en un plazo de 20 días hábiles.

Además, en segundo lugar se habilita a las Diputadas y Diputados para que desarrollen y articulen otras medidas necesarias en relación con los procedimientos en sus correspondientes áreas de actuación.

En tercer lugar se declara la emergencia de los procedimientos contractuales necesarios para hacer frente a la pandemia en el ámbito de Bizkaia.

Por todo ello, en cumplimiento de todo lo anterior, por la presente y en uso de las atribuciones conferidas por el ordenamiento jurídico en vigor, el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta del Diputado General

### ACUERDA

*PRIMERO.-Instrucciones para ampliación de plazos de procedimientos.*

Para los procedimientos administrativos no tributarios ya iniciados, sean electrónicos o no, se acuerda la ampliación de un plazo de 20 días hábiles atendiendo a las excepcionales circunstancias provocadas por la pandemia. La ampliación se acuerda en beneficio de la ciudadanía y por consiguiente no surtirá efectos en la caducidad de los procedimientos,



ditzaketen prozeduren guztizko zenbaketan edo administrazio-isiltasun positiboan ere. Hori guztia horrela da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta aplikatu beharreko jurisprudentziaren arabera.

Zerga prozedurak bere arauditik erregulatuko dira.

#### BIGARRENA.— *Epeak luzatzeko gaikuntza.*

Foru-diputatuei ahalmena ematen zaie, beharrezkoa izanez gero, beren jardun-arloetan prozedura zehatzen epeak are gehiago luzatzeko, edo, hala badagokio, prozedura horiek eteteko, edo jada hasi, onartu edo argitaratu direnak geldiarazteko, kasu bakoitzaren inguruabar zehatzak kontuan hartuta, eta herritarrei nahasmenik, kalterik edo defentsa-gabeziarik ez sortzeko.

#### HIRUGARRENA.— *Kontratazio-prozeduretan larrialdia dagoela adieraztea.*

Bizkaiko Foru Aldundiko organoek eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeek edozein neurri hartzen badute zuzenean edo zeharka COVID-19ri aurre egiteko, orduan neurriok hartze horrek berehala justifikatuko du jardun beharra, Sektorre Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluan aurreikusitakoaren babesean.

Horren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeek neurriak hartu behar badituzte, COVID-19ri aurre egiteko, larrialdiko izapidetzea aplikatuko zaie neurri horien ondoriozko beharrei erantzuteko egin behar dituzten kontratu guztiei.

#### LAUGARRENA.— *Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuan dauden langileen osasuna garatzea eta babestea.*

Foru-sailetako titularrei ahalmena ematen zaie erabaki honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak

el cómputo total de los procedimientos susceptibles de producir efectos desfavorables o de gravamen o el silencio administrativo positivo. Todo ello siempre de acuerdo con la Ley 39/2015, de 1 de octubre y su jurisprudencia de aplicación.

Los procedimientos tributarios se regirán por su normativa específica.

#### SEGUNDO. *Habilitación para ampliación de plazos.*

Se habilita a las Diputadas y Diputados Forales a ampliar, si fuere preciso, aún más los plazos de los procedimientos concretos en sus respectivas áreas de actuación o en su caso a suspender los mismos o incluso a paralizar los ya iniciados, aprobados o publicados atendiendo a las circunstancias concretas de cada caso y con el objeto de que no se genere confusión, perjuicios o indefensión a la ciudadanía.

#### TERCERO- *Declaración de emergencia en los procedimientos de contratación.*

La adopción de cualquier tipo de medida directa o indirecta por parte de los órganos de la Diputación Foral de Bizkaia y entidades del sector público foral de Bizkaia para hacer frente al COVID-19 justificará la necesidad de actuar de manera inmediata, al amparo de lo previsto en el artículo 120 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

De acuerdo con ello, a todos los contratos que hayan de celebrarse por la Diputación Foral de Bizkaia y entidades del sector público Foral de Bizkaia para atender las necesidades derivadas de la adopción de medidas para hacer frente al COVID-19, les resultará de aplicación la tramitación de emergencia.

#### CUARTO.- *Desarrollo y protección de la salud del personal al servicio de la Diputación Foral de Bizkaia.*

Se habilita a las personas titulares de los Departamentos Forales a dictar, dentro de sus ámbitos competenciales, cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de lo



emateko, betiere beren eskumenen eremuetan.

Bereziki, Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuari bereziki ahalmena ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuan dauden langileen osasuna ondoen babesteko beharrezkoak diren antolaketa-neurri guztiak har ditzan.

BOSGARRENA.— *Herritarrentzako arreta-zerbitzuak.*

Zerbitzu hauek zabalik daude herritarrei aurrez aurreko arreta emateko, betiere, idazkiak, eskaerak eta komunikazioak aurkezteko bakarrik:

-Herritarren Arretarako Bulegoa (Diputazio kalea 7, beheko solairua, 48008 Bilbo), 09:00etatik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

-Ogasun eta Finantza Sailaren erregistroa (Basurtuko Kaputxinoen kalea 4-1, 48013 Bilbo), 9:00etatik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

-Gizarte Ekintza Sailaren erregistroa (Lersundi kalea 14, 48009 Bilbo), 9:30etik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

-Durangoko herritarren arretarako eskualdeko bulegoa, Askatasuna Etorbidea kaleko 12. zenbakia, 9:00etatik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

-Bermeoko herritarren arretarako eskualdeko bulegoa (Dolariaga kalea 19), 9:00etatik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

-Gernikako herritarren arretarako eskualdeko bulegoa (San Juan Ibarra plaza 5), 9:00etatik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

-Ogasun eta Finantza Saileko zergadunari laguntzeko bulegoak, Balmasedan, Barakaldon, Basaurin, Getxon, Mungian eta Portugaleten, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era. Helbide hauek kontsulta daitezke webgune honetan: <https://web.bizkaia.eus/eu/herritarrei-arreta-ematea-ogasunean>

Era berean, herritarrek Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuei buruzko informazio eguneratua eskura dezakete [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus) webgunean, eta harekin

dispuesto en el presente acuerdo.

Se habilita en especial a la Diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales a que adopte cuantas medidas organizativas fueren precisas para la mejor protección de la salud del personal al servicio de la Diputación Foral de Bizkaia.

QUINTO *Servicios de atención ciudadana*

Se mantienen abiertos al público los siguientes servicios de atención presencial ciudadana a los solos efectos de la presentación de escritos, solicitudes y comunicaciones:

- Oficina de Atención Ciudadana sita en la calle Diputación, 7, planta baja, 48008 Bilbao, en horario de 9:00 a 13:30 horas, de lunes a viernes.

- Registro del Departamento de Hacienda y Finanzas, sito en la calle Capuchinos de Basurto nº 4, 1º, 48013 Bilbao, en horario de 9:00 a 13:30, de lunes a viernes

- Registro del Departamento de Acción Social, sito en la calle Lersundi nº 14, 48009 Bilbao, en horario de 9:30 a 13:30 horas, de lunes a viernes.

- Oficina comarcal de atención ciudadana de Durango, sita en la calle Askatasuna Etorbidea 12., en horario de 9:00 a 13:30, de lunes a viernes.

- Oficina comarcal de atención ciudadana de Bermeo, sita en la calle Dolariaga 19, en horario de 9:00 a 13:30, de lunes a viernes.

- Oficina comarcal de atención ciudadana de Gernika, sita en la Plaza San Juan Ibarra, 5. en horario de 9:00 a 13:30, de lunes a viernes.

- Oficinas de atención al contribuyente del Departamento de Hacienda y Finanzas ubicadas en Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Getxo, Mungia y Portugalete, en horario de 9:00 a 13:30, de lunes a viernes. Pueden consultarse las direcciones en la web <https://web.bizkaia.eus/es/atencion-a-la-ciudadania-en-hacienda>.

Asimismo, la ciudadanía puede obtener información actualizada de los servicios de la Diputación Foral de Bizkaia en la web [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus) y dispone del canal



komunikatzeko telefono-kanala eskura dezakete bertan argitaratutako zenbakien bidez: <https://web.bizkaia.eus/es/atencion-telefonica> helbidean.

Herritarrek [www.bizkaia.eus/laguntza](http://www.bizkaia.eus/laguntza) helbidea ere badute kontsultak, kexak edo iradokizunak egiteko.

SEIGARRENA.— *Gardentasuna eta publizitatea.*

Erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bilbon, 2020ko martxoaren 13an

telefónico para comunicarse con ésta a través de los números publicados en la misma, en la dirección <https://web.bizkaia.eus/es/atencion-telefonica>.

La ciudadanía también cuenta con la dirección [www.bizkaia.eus/laguntza](http://www.bizkaia.eus/laguntza) para formular consultas, quejas o sugerencias.

SEXTO.- *Transparencia y publicidad.*

Publicar el presente Acuerdo en el Portal de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

En Bilbao, a 13 de marzo de 2020

DIPUTATU NAGUSIA

Unai Rementeria Maiz